

**ZIZURLAN COWORKING LANKIDETZAKO ETA EKINTZAILTZAKO EREMUAREN ERABILERA ETA
FUNTZIONAMENDUAREN ORDENANTZA**



ZIOEN AZALPENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGOA.- Lankidetzako Espazioaren edo Coworkingaren kontzeptua.

BIGARRENA.- Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuaren helburuak.

HIRUGARRENA.- Ordenantzaren xedea.

II. EGITURA ETA ANTOLAMENDUA.

LAUGARRENA.- Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuaren antolamendua.

BOSGARRENA.- Onuradunak.

SEIGARRENA.- Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuko zerbitzu-zorroa.

III. ORDUTEGIA, SEGURTASUNA ETA ERABILERA ETA KONTSERBAZIOA

ZAZPIGARRENA.- Ordutegia.

ZORTZIGARRENA.- Aldi baterako ixtea.

BEDERATZIGARRENA.- Zaintza eta segurtasuna.

HAMARGARRENA.- Giltzak zaintzea.

HAMAİKAGARRENA.- Aurreikuspen neurriak.

HAMABIGARRENA.- Azalera komunen erabilera.

HAMAIRUGARRENA.- Sarrera-eskubidea.

HAMALAU GARRENA.- Errotuluak, seinaleztapena eta elementu apaingarriak.

HAMABOSGARRENA.- Instalazioak mantentzea eta garbitzea.

IV. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

HAMASEIGARRENA.- Zizur Nagusiko Udalaren betebeharrak eta eskubideak.

HAMAZAZPIGARRENA.- Espazioen/postuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

HEMEZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

HEMERETZIGARRENA.- Debekuak eta mugak.

HOGEGARRENA.- Erabilera baimena irautzea mugaeguna baino lehen.

HOGETA BATGARRENA.- Zerbitzua ematea onuradunari jakinaraztea.

HOGETA BIGARRENA. Espazioaren erabileraren eta zerbitzua ematearen iraupena.

AZKEN XEDAPENA

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. ESKUBIDEAK IZAPIDETZEA.

II. ERANSKINA. PROIEKTUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

COWORKING ZIZURLAN LANKIDETZA ETA EKINTZAILTZA EREMUAREN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Zizur Nagusiko Udala herriaren ekonomia sustatzeko politikak ezartzen ari da, 2018-2021 aldirako Tokiko Garapen eta Enplegu Plan Estrategikoaren barruan: enpresa-azpiegituren arloko jarduketak egin, berrikuntzari laguntza eman, eta ETEen eta mikro-ETEen lehiakortasuna eta izaera ekintzailea sustatu.

Horregatik, Toki Garapenaren eta Enpleguaren arloko AMIA diagnostikoa kontuan hartuta, zeinak jarduera ekonomiko ahula adierazten baitu, eta enpresek funtzionamenduaren lehen urteetan merkatuan bidea irekitzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta, Udalak hasierako diru-laguntzak eman arren, eta gaitutako lan-eremuetara iristeko zailtasunagatik, Zizur Nagusiko Udalak Zizurlan Lankidetzeta eta Ekintzailtza Eremua sortu du.

Espazio hori dagoeneko sendotuta dagoen irtenbide bat da, coworking baten filosofiaren bidez: egonkortasuneko eta babes bereziko ingurune bat hornitzea, enpresa-ideia berritzaileei edo enpresa sortu berriei aukera emango diena ondoren garapen independentea lortzeko. Baliabide hori enpresak sortzeko laguntza- eta zabalitze-zentroa da, eta enpresa-proiektuak abian jartzen eta finkatzen hasten diren ekintzaileentzako eta enpresarietzako beharrezko euskarria izatea du helburu, udalerrian garapen ekonomikoa eta enplegu egonkorren sorrera sustatzeko helburuarekin, kontuan hartuta ibilbide hori hasi nahi duten emakume eta gizonen artean egon daitekeen abiapuntuko egoera desberdina.

Ekintzailtza erakarri nahi da, tokiko baliabideak berritu eta balioetsi, eta emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunean profesionalak jartzen lagundu, sexuen arteko lan-bereizketa apurtuz, udalerrian ETEen eta mikroenpresen modernizazioa eta sorrera bultzatzeko, lehentasunez honako eremu hauen inguruan:

1. Aholkularitzarekin, ingeniariarekin, lege-alderdiekin, auditoretzekin eta prestakuntzarekin lotutako zerbitzu profesionalak.
2. Herritar talde desberdinei (adingabeak, gazteak, adinekoak, mendekoak...) arreta ematearekin lotutako zerbitzuak, garraioarekin lotutako beste zerbitzu mota batzuk.
3. Aisialdi osasungarri eta irisgarriko proiektuak eta ekimenak, udalerriko ingurune natural eta pribilegiatua aprobetxatuz.
4. Kultura- eta aisialdi-zerbitzuak, bai eta komunikazio-, diseinu- eta IKT teknologia berrien zerbitzuak ere.

I. XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGOA.- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren edo Coworkingaren kontzeptua.

Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremua enplegua eta autoenplegua sustatzeko udal-titulartasun publikoko espazio fisikoa da. Aldi baterako espazioa erabiltzea eskaintzen die ekintzaileei edo enpresa txiki eta ertainei, bai eta zerbitzu komunak ematea ere, beren jardueraren lehen urteetan enpresa horiek ezartzeko, aireratzeko eta finkatzeko oinarrizko beharrak asetzeko, eta betebeharrak ekonomiko batzuk sortzeko.

BIGARRENA.- Lankidetzako eta ekintzailtzako Eremuaren helburuak.

Espazio honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Enpresa berriak sortzen, abian jartzen eta finkatzen laguntzea.
- Enplegua sortzen laguntzea.
- Tokiko ekoizpen-egitura dibertsifikatzea, izaera berritzaileko enpresen instalazioa bultzatuz.
- Bitarteko egokia sortzea, prezio- eta zerbitzu-baldintzetan, enpresa-ekimenek beren enpresa-plana garatu ahal izan dezaten, egonaldi mugatu batekin lehiatzeko eta merkatu-baldintzetan jarduteko egoeran egon daitezen.
- Emakumeen autoenplegua eta mikroenpresak sortzen laguntzea.

HIRUGARRENA.- Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren erabilera arautzea da.

Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren helburua Zizur Nagusiko ekintzaileei, autonomoei, profesionaleri eta mikroenpresei elkarlanerako espazio bat eskaintzea da, elkarlaneko eredu batean oinarrituta sinergiak sortzea, ikaskuntza bateratua, harremanak sustatzea eta proiektuak eta ezagutza partekatzea sustatzeko.

Zehazki, honako hauek arautzen dira:

- a) Zizurlan erabiltzen duten enpresen eta ekintzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak.
- b) Zizurlanen administrazioa, eremua mantentzeko eta kontserbatzeko, bai eta erabilera komuneko gune eta bulegoak ere.
- c) Zizurlaneko erabiltzaileen arteko harremanak eta zerbitzu zein eremu komun erabilera egokia.
- d) Ordenantza hau ez betetzearen eraginak eta ondorioak.
- e) Toki Garapenerako Zerbitzuak Zizurlan Eremuarekiko dituen eginkizunak.
- f) Eskubideak izapidetzea eta balorazio-irizpideak.

II. EGITURA ETA ANTOLAMENDUA.

LAUGARRENA.- Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuren antolamendua.

Zizurlanen antolaketa-egitura, Elkarlaneko eta Ekintzailtzako Lan Eremuaren funtzionamendu egokia bermatzeko, Udalak kudeatuko du, Toki Garapen eta Enplegu Zerbitzuaren bidez, eta barneko beste udal eragile batzuen edo profesional aditu edo kanpoko adituen laguntza izango du, horien eginkizunen arabera (proiektuak hautatzea, ekintzaileen egonaldia luzatzeari edo ez luzatzeari buruzko erabakiak hartzea, horiei prestakuntza, laguntza eta aholkularitza ematea, etab.), eta horien berri emango du. Toki Garapen eta Enplegu Zerbitzuari.

Toki Garapen eta Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak dira:

- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren ohiko kudeaketa, Zizurlanen funtzionamendurako eta barne-araubiderako jarraibide hauen arabera.
- Lanpostuak eta horietarako altzariak esleitzea.
- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko lanpostuak esleitzeko eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, eta organo eskudunari espazioak esleitzeko proposamena egitea, kontuan hartuta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa eta beharrezkoa den ekintza positiboko neurriak hartzea sexuen artean egon daitezkeen desberdintasunak murrizteko.
- Hala badagokio, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren Urteko Memoria eta hurrengo urterako Jarduketan Urteko Plana egitea eta onestea proposatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta eta datuak sexuaren arabera bereizita, emakumeek eta gizonek espazio hori berdintasunez erabiltzen duten aztertu ahal izateko.
- Ekintzaileak babestea eta laguntzea Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan dauden bitartean, edo eginkizun horiek gainbegiratzea, beste erakunde, enpresa edo erakunde batekin egindako akordio baten bidez eskuordetzen badira.
- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko ekintzaileen hazkunde profesionalera bideratutako prestakuntza-jarduerak edo -ekintzak eta zerbitzu-programak egiteko proposamena. Ekintza horien edukiek berdintasunaren arloko prestakuntza jasoko dute, ekintzailtza- eta enpresa-jardueran genero-ikuspegia sartu ahal izateko.
- Zizurlaneko espazioen esleipendunei ezarritako betebeharren balizko ez-betetzeak aztertzea, eta, hala badagokio, udal-organo eskudunari helaraztea.
- Ordenantza honetan esleitzen zaizkion beste eginkizun batzuk.

Eskabideak onartzeko eta baloratzeko prozesua sei hilean behin egingo da, behar bezala iragarriko diren balioespen-deialdien bidez, eta eskabideak jasotzeko epea irekita egongo da etengabe.

BOSGARRENA.- Onuradunak

Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremua, lehentasunez, honakoei zuzentzen zaie:

1. Zizur Nagusian erroldatutako pertsonak.
2. Helbide fiskala Zizur Nagusian edo Iruñerriko beste udalerri batean duten autonomoak, profesionalak eta mikroenpresak eta ETEak.
3. Iruñerriko beste udalerri batean erroldatutako pertsonak (bi pertsona edo gehiagoko proiektuen kasuan, nahikoa izango da eskatzailea Zizur Nagusian edo Iruñerrian erroldatuta egotea).
4. Iruñerrikan kanpoko ekintzaileak edo autonomoak, profesionalak eta mikroenpresak.
5. Salbuespenezko kasuetan, eta lekua baldin badago, beste enpresa batentzat telelan-modalitatean soldatapean lan egiten duten pertsonak, langile autonomoak izan beharrik gabe.

SEIGARRENA.- Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuko zerbitzu-zorroa.

1. Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako gunea Zizur Nagusiko Belaskoain kaleko 26. zenbakian dago, Nafarroan, eta instalazio hauek ditu:

a) Beheko solairua, irisgarria:

- Banakako lanpostuetarako espazioa: 12.
- 10 metro koadroko bileretarako aretoa: 6-8 pertsona arte.
- 2 komun, 1 irisgarria.

Banakako lanpostu bakoitzak ekipamendu hau du:

- Mahai pertsonala, aulki bakarrarekin.
- Elektrizitate-harguneak, ekipo informatikoak eta argi-puntuak konektatzeko.
- ADSL konexioa
- Giltzapeko armairu bat.

Bilera-gela Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuaren erabiltzaileen eskura jartzen da, ekipamendu honekin:

- Bilera-mahaia eta 8 aulki.
- Hormako pantaila, ordenagailuak edo beste gailu batzuk konektatzeko aukerarekin.
- Elektrizitate-harguneak, ekipo informatikoak eta argi-puntuak konektatzeko.
- Internetera konektatzeko kablea.

b) Lehen solairua, eskaileretatik igoz:

- 11 metro koadroko *office* aretoa. Atsedenerako espazioa.
- 11 metro koadroko bilera-gela.

c) Bigarren solairua, eskaileretatik igoz:

- 44 metro koadroko gela hutsa.

2. Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuak honako espazio hauek ditu aipaturako helburuak betetzeko:

- Azpiegitura komunak, elkarrekin zenbait gastu partekatuz negozioa finkatzea erraztuko dutenak.
- 12 lanpostu, berehala erabiltzeko oinarrizko altzariekin: mahaia, aulkia eta armairua.
- Kokatuta dagoen eraikinaren komunak eta konpartitzeko espazioak.

Seinaleztapenari dagokionez, kanpoko panel batean espazioaren erabiltzaile den negozioaren edo enpresaren logotipoak edo ideia-marka erakutsiko da, eta postontzi fisiko baterako sarbidea egonen da, posta jasotzeko.

3. Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuan eman beharreko zerbitzuak, oro har, honako hauek dira:

- Oinarrizkoak:
 - Ura, argia, klimatizazioa eta ADSL Wifi konexioaz hornitzea.
 - Eremua garbitzea, mantentzea eta kontserbatzea.
 - Erreprografia-zerbitzua, kontsumo indibidualagatik ordainduko dena.
- Espezializatuak:
 - Aholkularitza teknikoa eta profesionala enpresa-jarduerak garatzeko interesgarriak diren gaietan, genero-ikuspegia barne, hala dagokionean.
 - Finantzaketa-programei, laguntza publikoei, administrazio-izapideei eta diru-laguntzei buruzko informazioa.

III. ORDUTEGIA, SEGURTASUNA, ERABILERA ETA KONTSERBAZIOA.

ZAZPIGARRENA.- Ordutegia.

Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremua urteko hamabi hilabeteetan irekita egonen da, lanegunetan, astelehenetik larunbatera, estatuko, foru komunitateko edo tokiko jaiegunak errespetatuz.

Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan ordutegi orokorra 08:00etatik 21:00etara izango da, astelehenetik larunbatera. Ezingo da ordutegi horretatik kanpo sartu Zizur Nagusiko Udalaren berariazko baimenik izan ezean.

Zerbitzu eta eremu komunak erabiltzeko, oro har, irekiera orokorreko ordutegia errespetatuko da, 08:00etatik 21:00etara.

Ezarritako ordutegiak aldatu ahal izango dira, eta erabiltzaileei jakinarazi, batez ere uztailen eta abuztuan eta jaiegunetan.

Erabiltzaileek Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremua erabili ahal izango dute kontratatutako aukeran, eta inola ere ezingo dute gaua espazioan eman.

Espazioaren erabilera pertsonala eta transferiezina da. Eraikineko eta aretoetako sarrerak eta irteerak txartel automatikoaren edo administrazio-erregistroaren bidez erregistratuko dira, eta kontratatutako espazioaren erabileraren jarraipena egingo da aldian-aldian. Zizur Nagusiko Udalak giltza bana emango dio erabiltzaile bakoitzari, eta giltza hori ezin izango zaie hirugarrenei laga Udalaren berariazko baimenik gabe.

Enpresa edo proiektu ekintzaile bakoitzeko, gehienez bi lanpostu eskatu ahal izango dira, eta salbuespen gisa lau lanpostu betetzeko aukera baloratu ahal izango da. NAN bidez identifikatu beharko dira lanpostu horiek erabiltzea eskatzen duten pertsonak, eta horien artean egon beharko du eskaera egiten duen pertsonak berak.

Lankidetzako eta ekintzailtzako Eremuaren izaera eta helburuak mantentzeko, funtsezkoa da erabiltzaileen presentzia fisikoa. Horregatik, gutxieneko erabilera presentziala eskatu ahal izango da.

ZORTZIGARRENA.- Aldi baterako ixtea.

Edozein unetan espazio komun guztiak edo batzuk ixteko aukera izango da, bai eta Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko bulegoak ixteko ere, beharrezko konponketa- edo aldaketa-lanak egiteko, eragiten dien lanpostu edo espazioen titularrei 15 egun naturaleko aurrerapenarekin jakinarazi ondoren, premiazko edo ezinbesteko kasuetan izan ezik. Aldi baterako itxiera horrek ez die inola ere erabiltzaileei eskubiderik emango Udalari ondare-erantzukizuna eta kalte-galeren ordaina eskatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Zaintza eta segurtasuna.

Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuak ez du segurtasun- eta zaintza-sistema espezifikorik. Zizur Nagusiko Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko lagatako postu edo espazioen segurtasunari dagokionez, sute, lapurreta, ezinbesteko istripu edo, oro har, edozein motatako istripu gertatuz gero, pertsoneri, salgaiei edo gauzei sor dakizkiekeen kalteengatik.

Zizur Nagusiko Udalari, Toki Garapen Zerbitzuari edo Udaleko langileei inolako erantzukizunik erreklamatzeari uko egiten diote erabiltzaileek, Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan segurtasun-neurri nahikorik ez izateagatik objektuetan, materialetan eta produktuetan eragindako kalteengatik.

Debekatuta dago su-itzalgailuak justifikaziorik gabe erabiltzea, bai eta segurtasun-gailu edo neurriena ere, eta arlo horretan emandako arau eta jarraibide guztiak errespetatu beharko dira.

Larrialdi- eta/edo ebakuazio-irteera gisa erabil daitezkeen pasabideek, bideek eta ateeak libre eta oztoporik gabe egon beharko dute beti, une oro zailtasunik gabe erabili ahal izateko.

Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren barruan ezin izango da jarri edo utzi lurzoruen eta hormen karga-muga gainditzen duen objekturik.

Edozein motatako ondasunak, generoak edo elementuak biltegitatzeko eta kontserbatzeko, segurtasun-baldintza gorenak bete beharko dira beti, titularren edo, hala badagokio, enplegatuen erantzukizunpean; bereziki, merkataritza-, kontabilitate-, zerga- eta lankidetzako dokumentazioa, indarrean dagoen araudiak toki jakin batean egotea eskatzen duena izan ezik.

Debekatuta dago Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren gainerako erabiltzaileei zarata eta eragozpenak eragiten dizkien edozein elementu desegoki erabiltzea, bai eta edozein animalia (gida-txakurrak izan ezik) eta/edo material arriskutsu sartzea ere. Debekatuta dago esparruan enpresa- edota prestakuntza-jardueraz bestelako jarduerarik egitea.

HAMARGARRENA.- Giltzak zaintzea.

Segurtasun-arrazoiak direla eta, eta larrialdietan edo hala eskatzen duen edozein egoeratan erabiltzeko, Zizur Nagusiko Udalak lanpostu bakoitzeko gune/armairuetara sartzeko giltzen kopia bat izango du Zizurlan Coworking, Lankidetzeta eta Ekintzaitetzako Eremuan eta udaleko langileen eskura.

HAMAIKAGARRENA.- Aurreikuspen neurriak.

Eraikineko segurtasunarekin zerikusia izan dezakeen edozein egoera edo arrazoizko zantzu Zizur Nagusiko Udalari jakinarazi beharko zaio berehala, eta erabiltzaileek aplikatu ditzaketen kautelazko neurriak hartu beharko dituzte, hala ere.

Zizur Nagusiko Udalak eskubidea du Udalaren edo bere erabiltzaileen segurtasunerako, osperako eta intereserako kaltegarritzat jo daitekeen edozein pertsona Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzaitetzako Eremuan ez onartzeko. Esleipendunek ekintza horretan lagundu beharko dute, hala eskatzen zaienean.

Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzaitetzako Eremuan sartzen den edo bertan jarraitzen duen edozein pertsonak bere burua identifikatu eta bertan dagoela justifikatu beharko du, erabiltzaileekin edo Toki Garapen Zerbitzuarekin duen loturagatik.

HAMABIGARRENA.- Azalera komun erabilera.

Eraikinaren espazio komunak aurreikusitako erabileretarako baino ez dira erabiliko, eta haien gainean ezin izango dira inolara ere mantendu beren egiturarekin zerikusirik ez duten materialak edo elementuak. Hori gertatuz gero, Zizur Nagusiko Udalak azalera komunetan dagoen material edo elementu oro kendu ahal izango du, eta material edo elementu horren jabeari jakinarazi.

Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzaitetzako Eremuko espazioen erabiltzaile bakoitzak eremu komun erabilera askea izango du, xedearen arabera, betiere espazio bakoitzaren erabilera-arau espezifikoak errespetatzen badira, eta gainerako erabiltzaileen eskubide berberak eta funtzionamendu egokia eragozten ez badira.

Espazio komun erabilerari buruzko arau orokorretan jasotako baldintzak ez betetzea dakarren edozein egoerak espazio horiek erabiltzea galaraziko du. Hala ere, Toki Garapeneko arduradunak egoera bakoitza modu berezian aztertuko du, eta espazioa erabiltzeko beste irtenbide batzuk antolatu ahal izango dira.

Erabilera partekatuko espazioei dagokienez, bizikidetzaz egokia ziurtatzeko, sarbide-baldintza hauek errespetatu behar dira:

- Aretoen erabilera:
 - Beheko solairuko bilera-gelak banakako erabilerarako espazio bat eskaintzen die erabiltzaileei, bileretako pribatutasuna bermatzeko, bezeroentzako aurkezpenetarako edo instalaziora egokitzen den beste edozein egoeratarako. Bilera-gela honetako erreserbak, oro har, 2 orduko iraupena izango dute gehienez, enpresa edo pertsona ekintzaile guztiek bertara sartzeko aukera izan dezaten.
 - Zizurlan Coworkingaren erabiltzaileek ere eskubidea izango dute, prezio publiko beraren barruan, lehen solairuko 44 metroko aretotik hilean 12 orduko erabilerarako, eta erabilgarritasun hori 14 ordura arte luzatu ahal izango da erabiltzaile guztien eskaerak horretarako aukera ematen bada. Adierazitakoa baino erabilera handiagoa egiten bada, *Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuaren Zerbitzuen Erabileraren prezio publikoak arautzen dituen arauan* areto honetarako ezarritako prezio publikoa ordainduko da.
 - 44 m-ko gela gehienez 16 laguntzako edukierarekin erabili ahal izango da, honako jarduera hauek egiteko:
 - Bilerak
 - Aurkezpenak
 - Prestakuntza
- Gainerako espazioen erabilerak prezio publiko berezia izango du.
- Partekatutako espazioen erreserbak Toki Garapeneko Zerbitzuari eskatuko zaizkio, horretarako ezarritako sistemari jarraituz, eta koadrantea eguneratuta mantenduko da, edozein unetan ekintzaile guztiek jakin dezaten espazioa erabiltzeko aukera dagoen.
- Erabiltzaileek gizalegari eta bizikidetzari buruzko oinarrizko arauak errespetatzeko konpromisoa hartu behar dute, espazioaren erabilera partekatua ahalbidetzeko, eta saioaren hasieran zeuden baldintza berberetan utzi behar dute instalazioa.
- Aretoa erabiltzen ari denean, kanpoko atean behar bezala seinaleztatu behar da. Halaber, seinaleak kendu behar dira erreserba amaitzen denean. Seinale horiek behar bezala erabiltzeak eragozpenak eta beharrik gabeko etenak saihestuko ditu.
- Behar-beharrezkoa da egindako areto-erreserbak betetzea edo, bestela, erabiliko ez direnak bertan behera uztea.
- Zizur Nagusiko Udalak bilera-gela erabiltzeko eskubidea ken liezaieke Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuan ostatu hartzen duten enpresa eta ekintzaileei, baldin eta ez badute behar bezala erabiltzen.

HAMAIRUGARRENA.- Sarrera-eskubidea.

Zizur Nagusiko Udalak beretzat gordetzen du, Toki Garapeneko Zerbitzuaren bidez edo hark behar bezala baimendutako edozein pertsonaren bidez, erabiltzaileek okupatutako Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko edozein espaziotan sartzeko eskubidea, bulegoak erabiltzeko baimena duten enpresaburuei edo ekintzaileei ezarritako betebeharrak betetzen direla zaintzeko, bai eta, hala badagokio, beharrezko konponketak egin ahal izateko ere. Larrialdi edo ezinbesteko egoeretako kasuetan, Zizur Nagusiko Udala Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko gune guztietara sartu ahal izango da, baita ateak hautsita ere, larrialdiko konponketei erantzuteko, irekitze-orduetatik kanpo edo lanpostua/espazioa erabiltzeko baimena duen enpresaburua edo ekintzailea ez dagoenean ere, eta berehala jakinaraziko zaio.

HAMALAU GARRENA.- Errotuluak, seinaleztapena eta elementu apaingarriak.

Ez da inolako errotulurik onartuko eraikineko eremu komunetan edo kanpoaldean, ezarritakoetatik kanpo, eta Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko erabiltzaileek hizkuntza ez-sexistan egingo diren direktorio- eta seinaleztapen-ereduetara egokitu beharko dute.

Espazio/postuetako errotulazio eta publizitate seinaleztapenei dagokienez, Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren erabiltzaileek espazio osoan eraikuntza- eta arrazionalizazio-irizpideekin bateragarri egiteko ezartzen den erregulazioari jarraituko diote.

Erabiltzaileek ezin dute, inola ere eta inon, binilorik jarri, ez eta behin betiko atxikita geratzen den eta espazioaren estetika aldatzen duen antzeko formaturik ere.

HAMABOS GARRENA.- Instalazioak mantentzea eta garbitzea.

Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren erabiltzaileek uneoro mantendu beharko dituzte lagatako bulegoak eta azalerak eta ekipamenduak, funtzionamendu, aurkezpen eta garbitasun egoera onean. Erabiltzailearen jarduerak espazioaren egiturazko elementuetan, instalazio orokorretan, erabilera komuneko eremuetan, lagatako bulego edo espazioetan edo altzarrietan eragiten dituen kalteak zuzenean eta bere kontura konponduko ditu erabiltzaileak. Eskatutako epean egiten ez bada, eremua erabiltzeko baimena indarrrik gabe utziko da, eta konponketak eragindako kostua arduradunari jasanarazi ahal izango zaio. Zizur Nagusiko Udalak beretzat gordetzen du dagozkion legezko ekintzetara jotzea, erreklamatu daitezkeen erantzukizun zibil edo penalak alde batera utzita.

Zizur Nagusiko Udalak eraikin osoko gune eta instalazioen garbitasuna zainduko du. Horretarako, Zizur Nagusiko Udalak ezartzen dituen ordutegiak bete beharko dituzte espazioaren erabiltzaileek, eta erabilitako espazioen garbiketa erraztu beharko dute. Bulegoak garbitzeko baldintzak erabiltzaileek errespetatu beharko dituzte, batez ere zaborrak ebakuatzeari dagokionez.

IV. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

HAMASEIGARRENA.- Zizur Nagusiko Udalaren betebeharrak eta eskubideak.

1.- Betebeharrak:

- Enpresaburuari edo ekintzaileari lanpostu baten erabilera jakinaraztea Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuan, eta hura eskuragarri jarri dela, jakinarazpenaren dataren ondoren, eta, hala badagokio, eskatutako bermea eratzten denetik aurrera.
- Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuaren eskura jarritako zerbitzuak ematea.

2.- Eskubideak:

- Aurreikusitako arrazoiengatik bulegoa erabiltzeko baimenari amaiera ematea, dagokion prozedura izapidetu ondoren; prozedura horretan, entzunaldia emango zaio interesdunari.
- Funtzionamendu-ordenantza hau betetzen dela zaintzeko behar den informazioa eskatzea.

HAMAZAZPIGARRENA.- Espazioen/postuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Zizur Nagusiko Udalak esleipen-erabaki bat hartuko du, eta, bertan, esleipenaren baldintza guztiak zehaztuko dira. Erabiltzaileak akordio horretan aurreikusitako klausula guztiak betetzeko konpromisoa hartuko du.

Erabiltzaileek Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuko arduradunak ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte metodologiari eta prozedurei dagokienez, bai eta bertako instalazioak erabiltzeari eta zaintzeari dagokienez ere.

Sustatzaileek erakunde publikoei ordaindu beharko dizkiete behartuta dauden zergak, prezio publikoak eta prezioak.

Zizur Nagusiko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango die erabiltzaileei legezko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa.

1.- Enpresarien eta ekintzaileen eskubideak.

a) Udal-baliabideen bidez, jarraian zehazten diren hornidurak eta zerbitzuak jasotzea:

- Ura, argia, klimatizazioa eta ADSL Wifia.
- Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuaren kontserbazioa, mantenua eta garbiketa.
- Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuan behar orokorrekoak diren eta proposatutako helburuekin bat datozenak.

b) Lanpostuari esleitutako altzariak (mahaia, aulkia eta armairua), instalazioak eta espazio komunak erabiltzea, haien mantentze-lanak zainduz eta horiek erabiltzeko arauak errespetatuz.

c) Zizur Nagusiko Udalak programatutako jardueretan parte hartzea, horretarako ezarritako baldintzak betetzen badira.

d) Enpresaren irudi grafikoan "Zizurlan Coworking, Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremua" marka erabiltzea, espiritu ekintzailea eta negozio-idea bat abian jartzeak dakarren ahalegina eta entrega aintzatestea.

2.- Enpresarien eta ekintzaileen eta betebeharrak.

a) Espazioko instalazioak eta altzariak egoera ezin hobean erabiltzea eta mantentzea.

b) Esleipen-erabakiaren ondoriozko betebeharrak ekonomikoak betetzea (hasierako berme ekonomikoa, bi kuotari dagokiona; eta hileko prezio publikoa).

c) Espazioan garatzen den enpresa-jardueraren gaineko kargak, zergak eta gainkostuak bere kontura ordaintzea.

d) Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuko enpresen errealitatearen irudi fidela izateko, enpresa horiek Zizur Nagusiko Udalak eskatutako informazio guztia eman beharko dute nahitaez. Nolanahi ere, sei hilean behin Udalaren esku utzi beharko dira langile autonomoen erregimen bereziari egindako ordainagiriak.

e) Udal-titulartasunaren berezko elementuak itzultzea bulegoa erabiltzeko baimena amaitzean, arrazoia edozein dela ere, jaso zuen erabilera-baldintza berberetan, erabilera normal eta arduratsua eta horrek eragindako kaltea alde batera utzita.

f) Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta izatea, gutxienez 50.000,00 euroko estaldurarekin, hirugarrenei eragindako kalteak estaltzeko, erantzukizun zibil profesionaleko estaldurarekin. Era berean, guneetan utzitako ondasun pertsonalei eta informatika-ekipamenduei egindako kalteak jaso beharko dituzte, bakoitzak duen balioaren arabera, eta lapurretaren, sutearen eta uragatiko kalteen estaldura izango dute. Aseguruaren ordainagiria urtero aurkeztu beharko da.

g) Ekintzaileek etxeko aseguru-poliza bat aurkeztu beharko dute, baldin eta Coworkingean alta emateko unean jarduera profesionalik egiten ari ez badira.

h) Zizur Nagusiko Udalarari idatziz jakinaraztea, gutxienez hilabete lehenago, ezarritako gehieneko epea bete baino lehen espaziotik alde egiteko asmoa. Jakinarazpen-epe hori errespetatzen ez bada, dagokion hileko betebeharrak ekonomikoa bete beharko da, nahiz eta Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuko instalazioen erabilera amaitu.

i) Zizur Nagusiko Udalak antolatzen dituen programak eta jarduerak garatzen laguntzea, baldin eta zuzenean lotuta badaude Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuarekin, eta hala eskatzen bada.

j) Eremua mantentzeari dagokionez, erabiltzaileek kontserbazio-egoera onean mantendu beharko dituzte instalazioak, ekipamendua eta altzariak, eta haiek gaizki erabiltzeak sor ditzakeen kalteak beren gain hartuko dituzte.

k) Garbiketari dagokionez, erabiltzaile bakoitza arduratuko da bere lanpostua garbi mantentzeaz, eta mahaia paperik eta bestelako objekturik gabe utziko du lanaldia amaitu ondoren. Debekatuta dago lanpostuan jatea, eta atsedenerako edo elkartzeko gunea erabiliko da kafea edo tea hartzeko, besteak beste. Espazio hori erabiltzen denean, dena garbi eta jasota utziko da.

Lokala eskusiboki erabiltzeko eskubidea galtzeko kausa izango da ordenantza honetan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.

HEMEZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuan ostatu hartzen duten enpresari eta ekintzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak tratatzeko eta Zizur Nagusiko Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartzeko.

Era berean, enpresariak eta ekintzaileak baimena ematen dute Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuan dauden bitartean irudiak grabatzeko edo hartzeko, edo Zizur Nagusiko Udalaren jardueretan, topaketetan eta/edo bileretan parte hartzeko, bideokameren edo argazki-kameren bidez. Irudiak dokumentazio gisa erabili ahal izango dira Zizur Nagusia aipatzeko hainbat hedabidetan, buletinetan, webgunean eta gainerako difusio-elementuetan. Zizur Nagusiko Udalaren titulartasuneko datuak fitxategian sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte enpresari eta ekintzaileak.

HEMERETZIGARRENA.- Debekuak eta mugak.

Berariaz debekatuta dago Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan erabiltzaileek honako jarduera hauek egitea:

- Segurtasun- eta higiene-arauek baimentzen ez duten edozein material erabiltzea.
- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan egitea gainerako okupatzaileentzako arriskutsu, osasungaitz eta kaltegarritzat jo daitekeen jarduera oro. Espazio/postu bakoitza erabiltzeak ez du aparteko eragozpenik eragin behar (salbuespenezkoa izatekotan ere), proiektuan aurreikusitako jarduerari dagokienez.
- Edozein postu/espazio osorik edo zati batean etxebizitza gisa edo baimendu gabeko beste erabilera gisa erabiltzea.
- Bulegoetan Zizur Nagusiko Udalak lagatakoaz kanpoko altzariak sartzea, aldeztatik eskatu eta berariazko baimena eman ezean.
- Oro har, bulegoetako/postuetako erabiltzaileek ez dute zentroko giroa oztopatu behar, zaraten, bibrazioen, usainen, tenperaturen edo beste erabiltzaileei eragin diezaikekeen edo eragozpenak sor diezazkiekeen beste edozein kausaren bidez.

HOGEGARRENA.- Erabilera baimena irautitzea mugaeguna baino lehen.

Dokumentu honetan ezarritakoaren arabera, Zizurlan Coworking Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko lanpostu/espazio bakoitzaren erabilera-epea aurrerago adierazitako epea izango da.

Epe horrek gehieneko egonaldiari egiten dio erreferentzia, baina udaleko organo eskudunak baliorik gabe utzi ahal izango du erabilera-baimena, irauti aurretik eta dagokion prozedura izapidetu ondoren. Prozedura horretan, nolana ere, entzunaldia emango zaio interesdunari, honako arrazoi hauengatik:

- Interes publikoko gorabeherak justifikatzen badute.
- Ekintzaileek Lankidetzako eta Ekintzailtzako Guneko gainerako erabiltzaileei zarata eta eragozpenak eragiten dizkien edozein elementu desegoki erabiltzeagatik, eta edozein animalia eta/edo material arriskutsu, deseroso edo sukoi sartzegatik.
- Eremuan enpresa- eta/edo prestakuntza-jardueraz bestelako edozein jarduera egiten bada.
- Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren egiturazko elementuetan, instalazio orokorretan, erabilera komuneko eremuetan, lagatako bulegoetan edo espazioetan edo altzarietan eragindako kalteak bere kontura ez konpontzeagatik.

- Dokumentu honetatik, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremura sartzeko hautaketa-prozeduratik eta/edo bulegoak erabiltzeko baimenaren jakinarazpenean jasotako betebeharren bat betetzen ez bada.
- Ekintzaileen eskaera, ordenantza honetan jasotakoaren arabera.

HOGIETA BATGARRENA.- Zerbitzua ematea onuradunari jakinaraztea.

Zizur Nagusiko Alkatetzak Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremua erabiltzeko baimena ematea onartu ondoren, horren berri emango zaio onuradunari.

HOGIETA BIGARRENA.- Espazioaren erabileraren eta zerbitzua ematearen iraupena.

Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuaren erabilera aldi baterakoa izango da, eta eskatzaile motaren arabera aldatuko da:

1. Garatu nahi duten negozio-idea bat duten pertsona ekintzaileak¹:
Espazioa erabili ahal izango dute bideragarritasun-plana egiten ari diren bitartean edo enpresa martxan jartzeko urratsak ematen ari diren bitartean. Gehienez urtebete bete arte erabili ahal izango dute, eta ezingo da luzatu. Enpresa eratzen den unean, hurrengo puntuan zehazten diren baldintzak aplikatuko dira, eta lehentasuna izango dute espazioa erabiltzen jarraitzeko, gainerako eskaeren aurrean. Salbuespen gisa, eta Coworkingean lekua badago eta proiektu berrien itxarotzez-zerrendarik ez badago, ekintzaileek egonaldia beste urtebetez luzatu ahal izango dute, beren proiektua sendotzeko.
2. Autonomoak, profesionalak eta mikroenpresak:
Hasierako kontratuak 2 urteko iraupena izango du, eta luzatzeko aukera egongo da. Horretarako, hilabete lehenago eskatu beharko da, eta Zizur Nagusiko Udaleko Alkatetzak onartu beharko du, Toki Garapeneko Zerbitzuak txostena egin ondoren.

Kontratuen luzapenek urtebeteko iraupena izango dute, baina plaza libreak dauden bitartean soilik onartu ahal izango dira eskaerak. Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko plazak beteta daudenean, itxarote-zerrendan dauden eskaerek eta eskabide berriek izango dute lehentasuna.

Horrelako egoerak gertatzen direnean eta une horretan kontratua mugaeguneratuta duen erabiltzaile bat baino gehiago dagoenean, zein erabiltzailek utzi beharko duen zehazteko, Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan emandako denbora hartuko da kontuan. Horrela, antzintasun handiena duen erabiltzaileak plaza libre utzi beharko du.

¹ Ekintzailtzat hartuko da negozio-/proiektu-idea bat garatzen ari dena, Coworkingean alta emanda dagoen unean, eta jarduera horrengatik diru-sarrerarik lortzen ez duena.

Hala ere, kasu horiek banan-banan aztertuko ditu Toki Garapen eta Enplegu Zerbitzuak, eta beste alderdi batzuk ere baloratuko ditu (sartzen den sustatzailearen beharrak, egingo duen jarduera...), bai eta genero-desberdintasunen konpentsazioa ere.

3. Kontratuaren indarraldia amaitu baino lehen espazioa erabiltzeari utzi nahi dioten erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute, eskabide normalizatuaren ereduaren arabera eta plaza Udalaren esku noiz geratuko den zehaztuta. Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuaren erabilera aldeztuetatik eteteak ez du inolako zigorrik ekarriko.
4. Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuaren erabiltzaile izateari utzi ondoren, gutxienez 2 urte igaro beharko dira beste eskaera bat onartu ahal izateko.

HOGIETA HIRUGARRENA.- Aretok kanpoko langileek erabiltzea / espazioen lagapena eta alokairua.

Zizurlan Coworkingak funtzio anitzeko espazioak ditu, horiek eska ditzaketen pertsona eta erakundeen beharrei erantzun ahal izateko.

1. Beheko solairua, irisgarria. Bilera/aurkezpen gela
 - Bileretarako gela: 10 metro koadro, mahai 1, 8 aulki.
 - Hormako pantaila, ordenagailuak edo beste gailu batzuk konektatzeko aukerarekin.
 - Elektrizitate-harguneak, ekipo informatikoak eta argi-puntuak konektatzeko.
 - Internetera konexio puntua.
2. Lehenengo solairua, bileretarako/aurkezpenetarako gelarako sarbidea eskaileretatik:
 - 44 metro koadroko gela hutsa, 4 mahai tolesgarri eta 24 aulkirekin.
 - Hormako pantaila, ordenagailuak edo beste gailu batzuk konektatzeko aukerarekin.
 - Elektrizitate-harguneak, ekipo informatikoak eta argi-puntuak konektatzeko.
 - Internetera konexio puntua.
 - 11 metro koadroko bilera-gela, mahai batekin eta bi aulkirekin.
3. Bigarren solairua, aurkezpen-aretoko eskaileretatik sarbidea:
 - 44 metro koadroko gela gardena, hainbat espazio, besaulki eta bi mahai dituena.

HOGIETA LAUGARRENA.- Zizurlan Coworkingen jarduerak garatzeko espazioak lagatzeari buruzko araudia.

ZIZURLAN COWORKINGeko espazioak lagako zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko enpresa, entitate, erakunde, elkarte edo irabazi-asmorik gabeko fundazioei, espazioaren lagapen-tasa publiko baten truke.

1. Eskabideak jasotzea:

- i. Entitate batek Zizurlan Coworkingen lehenengo aldiz espazio bat eskatzen badu, ebazpen-epea 5 egun baliodunekoa izango da, ZIZURLAN COWORKINGeko espazioak lagatzeko eskabide-inprimakia aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
 - ii. Entitateak ZIZURLAN COWORKINGen espazio bat eskatu ohi badu, ebazteko epea 3 egun baliodunekoa izango da, ZIZURLAN COWORKINGen lagatzeko eskabide-inprimakia aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.
2. Eskabideak jasotzeko epea:
ZIZURLAN COWORKINGEK espazioa lagatzeko eskabide-inprimakia hura lagatzeko eskaera egin baino gutxienez 5 egun lehenago izapidetuko da, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.
3. Dokumentazioa eta giltzak:
Entitateak behar bezala bete beharko du ZIZURLAN COWORKINGeko espazioak lagatzeko eskabide-inprimakia. Inprimaki horretan zehaztuko dira data, ordutegia, eskatutako espazioa, jardueraren deskribapen laburra eta jarduera gauzatzeko behar diren behar teknikoak.
Gainera, NANaren kopia bat entregatu beharko du.
Eskaera onartu ondoren, giltzak entregatuko dira eskatutako denborarako, eta, horretarako, 50 euroko fidantza jarri beharko da. Fidantza hori jarduera amaitzean itzuliko da, aretoaren erabilera aldeztu aurretik kontratatutakoa izan dela egiaztatuta ondoren.
4. Lagatzeko baldintzak:
Entitate eskatzaileak araudia betetzen dela zainduko du, eta horren berri izango du ZIZURLAN COWORKINGeko espazioa lagatzeko eskabide-inprimakia betetzen duenean.
5. Jardueraren hedapenean (liburuxkak eta kartelak, baldin badaude) ZIZURLAN COWORKINGaren logotipoa jasoko da, ekitaldiaren laguntzaile gisa.
6. Lagatutako espazioetan, ezingo dira aldatu, ordeztu edo baliogabetu ZIZURLAN COWORKINGi erreferentzia egiten dioten logotipoak edo panelak. Lagapen-irizpideak ZIZURLAN COWORKINGen ohiko erabileraren eta espazioen erabilgarritasunaren mende daude.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan aurreikusitako epea igarotakoan jarriko da indarrean..

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ondoren adierazten diren salbuespenezko kasuetan, tasa publikoaren % 100eko hobaria eman ahal izango zaie Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremuaren erabiltzaileei.

I. ERANSKINA

ESKABIDEAK IZAPIDETZEA.

Lokalak erabiltzeko baimen-eskaerak aztertu eta ebaluatuko dira, Toki Garapeneko Zerbitzuak ondoren jasotzen dituen balorazio-irizpideen arabera.

Eskabideak aztertu eta ebaluatu ondoren, Zizur Nagusiko Udaleko Alkatetzari helaraziko zaio akordio-proposamena, eta, hala badagokio, gaian eskumena duen Informazio Batzordearen irizpena ere bai, ebazpena eman dezan.

Eskabideak izapidetzea.

Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremua erabiltzeko eskaerak idatziz egingo dira, eredu normalizatuaren arabera. Bete eta sinatu ondoren, Udaleko Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako erregistroetan entregatuko da.

Eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko:

Pertsona fisikoen kasuan: fotokopia konpultsatuak edo NAN/AIZren benetako kopia.

Pertsona juridikoen kasuan: eskatzailearen fotokopia konpultsatuak edo NANaren/AIZaren benetako kopia, enpresaren izenean.

- Negozioaren ideia, honako hauek jasotzen dituen: garatu nahi den jarduera, jarduereremu geografikoa, balizko bezero hartzaileak, espero den bolumen ekonomikoa, negozioaren bideragarritasunerako Zizurlan Coworkingen lan egiteko behararen justifikazioa, enplegua sortzeko aurreikuspena.
- Bankuko helbideratzea egiteko beharrezko datuak biltzen dituen dokumentua.

Toki Garapeneko Zerbitzuak horretarako jasotako eskabide guztiak aztertuko ditu, proiektuen tipologiaren arabera.

Eskaera-kopurua dagoen lanpostu-kopurua baino handiagoa bada, balorazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioari jarraituz esleituko dira lanpostuak. Eskabide horiek Zizur Nagusiko Udaleko Alkatetzari aurkeztuko zaizkio, erabaki-proposamenarekin eta, hala badagokio, gaian eskumena duen Informazio Batzordearen irizpenarekin batera, ebazpena eman dezan.

Esleipena egin eta hilabeteko epean, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Erantzukizun zibileko poliza, lanbide-jardueran aritzeagatik, gutxienez 50.000 euroko zenbateko estalian.

- Pertsona fisikoen kasuan: Ogasuneko alta eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen erregimen bereziko alta edo baliokidea.
- Pertsona juridikoen kasuan: Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren alta ematea, eratze-eskritura, IFK, ahalorde-eskritura publikoaren fotokopia konpultsatua eta eskatzaileak administrazioarekin kontratatzeko dituen ahalmenak jasotzen dituenak.

Lankidetzako eta Ekintzailetzako Eremuan plaza lortu ez duten proiektuak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, lortutako puntuazioaren arabera. Plaza bat hutsik geratzen denean, itxarote-zerrendan dauden eskabideak, egon daitezkeen eskabide berriekin batera, esleitu egingo dira, eta horien esleipena puntuazio-ordenaren arabera ebatziko da.

Eskaera itxaron-zerrendan duten ekintzaileek eta enpresek beste balorazio bat eskatu ahal izango dute, baldin eta hasierako proiektuan funtsezko aldaketak egin dituztela justifikatzen badute.

II. ERANSKINA

PROIEKTUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Proiektuak irizpide hauen arabera baloratu eta ebatziko dira:

1. **NEGOZIO-IDEIA: 30 puntu**, gehienez.

Adierazleak:

- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Udal-estrategiarekiko koherentzia.
- Proiektuaren heltze-maila.
- Proiektua finantzatzeko estrategia (autofinantzaketa).
- Harremanetarako gaitasuna.
- Lanpostu eta enpresa berriak sortzea, proiektua abian jarrita.
- Udalerrian arreta eta babes handiagoa behar duten kolektiboek arreta ematea (adingabeak, mendekotasuna).
- Generoaren araberrako eragina.
- Berrikuntza soziala: udalerrian berriak diren negozio-zerbitzuak edo -ideiak, zerbitzuak emateko orduan lankidetzak edo sareko lana...
- Proiektuaren erantzun- edo transferentzia-maila gizarteari.

2. Sustatzaileen **GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA**. Gehienez **20 puntu**.

Adierazleak:

- Enpresa-proiektuarekin lotutako prestakuntza.
- Proiektu ekintzailearekin lotutako esperientzia eta ibilbide profesionala.
- Proiektuaren garapen-eremuko ezagutza.
- Elkarrizketa pertsonala Tokiko Garapen eta Enplegu Zerbitzuarekin.

3. **ENPRESA-JARDUERA ZEIN SEKTORETAN GARATZEN DEN**. **10 puntu**, gehienez:

Adierazleak:

- Aholkularitzarekin, ingeniariarekin, lege-alderdiekin, auditoretzekin eta prestakuntzarekin lotutako zerbitzu profesionalak.
- Herritar-talde desberdinei arreta ematearekin lotutako zerbitzuak (adingabeak, gazteak, adinekoak, mendekoak...), jarduera osasungarriak eta kirol-jarduerak, kultura- eta aisialdi-jarduerak, komunikazio- eta garraio-zerbitzuak.
- Aisialdi osasungarri eta irisgarriko proiektuak eta ekimenak, udalerriko ingurune natural eta pribilegiatua aprobetxatuz.

4. **LEHENTASUNEZKO POPULAZIO-PROFILETAKO ESKATZAILEAK.** Gehienez **20 puntu.**

Adierazleak:

- Iraupen luzeko langabeak (Langile Autonomoen Araubide Berezian alta eman aurreko 12 hilabeteetan langabezian etenik gabe izena emanda egotea), 4 puntu.
- 18 eta 30 urte bitarteko pertsonak edo berrogeita bost urtetik gorakoak, 4 puntu.
- %33ko edo handiagoko desgaitasuna duten pertsonak, 4 puntu.
- Behar bereziak dituzten pertsonak, 4 puntu.
- Emakumeak, 4 puntu.

Ondorengo kasuetan, baremazioa egiteko, kolektiboko kide dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5. **UDALERRIAN ERROLDATUTAKO PERTSONEK** sustatutako proiektuak. Gehienez **5 puntu.**

6. **HELBIDE FISKALA ZIZUR NAGUSIAN** duten enpresak. Gehienez **5 puntu.**

7. **SOZIALKI ARDURATSUAK** diren proiektuak **gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloetan** (genero-ikuspegia, gizarte-ekonomia, ingurumenaren jasagarritasuna). Gehienez **5 puntu.**

8. **LANKIDETZAKO ETA EKINTZAILTZAKO EREMUA DINAMIZATZEKO PROPOSAMENAK** planteatzen dituzten proiektuak, gainerako kideei balio erantsia ematen dietenak. Gehienez **3 puntu.**

9. Negozio-ideiaren **ROLEN, ESTEREOTIPOEN EDO LAN-BEREIZKETAREN** haustura-maila. Gehienez **2 puntu.**

Aldeko ebazpena lortzeko edo itxaroten ari diren eskatzaileen poltsan sartu ahal izateko, gutxienez %50 lortu beharko da (50 puntu).

Tokiko Garapen Zerbitzuak barematuko ditu proiektuak, barneko edo kanpoko laguntzarekin, baloratu beharreko proiektuen arabera.